
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (BTA)

ONTZI ARINEN AUKERAKETA ETA SAILKAPENERAKO LEGAZPIKO INSTALAZIOAK RSCIEI ED 164/2025 ARAUDI BERRIRA MOLDATZEKO PROIEKTUA



AURKIBIDEA

1 DEFINIZIOA ETA BALDINTZA-AGIRIAREN IRISMENA 3
1.1. DEFINIZIOA ETA XEDEA 3
1.2. AURREKARIAK 3
1.3. ARGIBIDEAK, ARAUAK ETA XEDAPEN APLIKAGARRIAK 4
1.4. OBRAK ZEHAZTEN DITUZTEN DOKUMENTUAK 11
1.5. LANEN DESKRIBAPENA 11
1.6. IRISMENA 11
1.6.1. LANEKO TALDEA 11
1.6.2. ERAIKUNTZA 12

2 KONTRATUAREN GARAPENEAN INDARREAN EGONGO DIREN BALDINTZA TEKNIKOAK 14
2.1. IZAERA ORORREKO BETEBEHARRAK 14
2.2. LAN-PROZEDURAK 14
2.2.1. Kontratistaren antolaketa 14
2.2.2. Eskumeneko zuzendaritzaren ikuskapenak 14
2.3. OSASUNA ETA SEGURTASUNA 15
2.4. INGURUMENA 15
2.5. LANEKO PROGRAMA 15
2.6. KALITATE-KONTROLA 16
2.7. ENBALAJEA, GARRAIOA ETA HORNIDURAREN DESKARGA 16
2.8. EGITEA OBRAN 16
2.8.1. Obran eskuragai dauden zerbitzuak 17
2.8.2. Obran dauden langileak 17
2.8.3. Obrako dokumentazioa 17
2.9. EGOKITZAPEN TEKNIKOAREN BUKAERA ETA MARTXAN IPINTZEA 17

1 DEFINIZIOA ETA BALDINTZA-AGIRIAREN IRISMENA

1.1. DEFINIZIOA ETA XEDEA

OCA GLOBAL REGLAMENTARIS S.A.U. enpresak atzemandako hutsak direla eta, ASMATU injinerutza enpresak, GHK S.A.U.k eskatuta, idatzitako txosten teknikoa oinarritzat hartuta, beharrezkoa da aldaketa batzuk egitea Ontzi Arinen Aukeraketa eta Sailkapenerako Legazpiko instalazioetan, 164/2025 EDarekin ezarritako baldintza berriak betetzea bermatuko dutenak, bai babes pasiboan eta bai babes aktiboan.

1.2 AURREKARIAK

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, GHK S.A.U.rena den Ontzi Arinen Aukeraketa eta Sailkapenerako Instalazioak industrialdean 26, 27, 28, 29, 30, 35 eta 36 zenbakiak dituzten pabilioiek osatutako instalazioak ditu, Legazpiko Urola kalea 8.A zenbakian kokatutakoak.

2025eko apirilaren 10ean Martxoaren 4ko 164/2025 EDa argitaratu zen, industria-establezimenduetan suteen aurkako Segurtasun Araudi berria onartzen eta aurrekoa (Abenduaren 3ko 2267/2004 EDan onartu zena) indargabetuta uzten duena.

ED berria 2025eko maiatzaren 10etik aurrera ezarriko da.

Lehen eta bigarre xedapen iragankorrak ezartzen du EDa indarrean sartu aurretik zeuden industria-establezimenduei ezarri beharreko erregimena. Aztergai den instalazioaren kasuari dagokionez, bigarren xedapen iragankorreko 2. atalean honako hau adierazten da:

“Eskumenari dagokionez, establezimenduko titularraren aukerarako, ED honek onartutako establezimendu industrialetako suteen aurkako Segurtasun Araudia ez da aplikatuko eraikuntza lanetan eta aurretik existitzen diren establezimenduetako esku-hartzeetan, baldin eta bi horietarako udal obra-lizentzia ED hau indarrean sartu denetik sei hilabeteko epean eskatzen bada. Era berean, lizentziaren eraginkortasun-epe gehienezkoan hasi beharko dute obrek, araudiaren arabera; eta, araudirik ezean, lizentzia eman zeneko datatik bederatzi hilabeteko epean. Bestela, honako ERREGE DEKRETUAREN bidez onartzen den establezimendu industrialetako suteen aurkako Segurtasun Araudi honetara egokitu beharko dute proiektuek.

Eskumena aplikatzeko aipatutako epean ED honek onartutako establezimendu industrialetako suteen aurkako Segurtasun Araudia aplikatu ahal izango da edo, bestela, aurretik indarrean dagoen Araudia (Abenduaren 3ko 2267/2004 EDak onartutakoa) aplikatu beharko da. Baldin eta Abenduaren 3ko 2267/2004 EDak onartutako Araudia aplikatzen bada, ED hau indarrean sartu denetik lau urteko

gehienezko epea izango dute establezimenduek eraikuntza bukatzeko eta martxan jartzeko".

1.3. ARGIBIDEAK, ARAUAK ETA XEDAPEN APLIKAGARRIAK

Aplikatu daitezkeen eta, bereziki, ondoren zerrendatzen diren xedapenak aplikatu ahal izango dira hala badagokio, baldintza-agiri honetan bildutakoen eransgarri eta osagarri gisa, baldin eta ez badute baldintza-agiriak zehazten duena aldatzen edo bere aurka egiten eta geroko beste batzuek ordezkatu ez badituzte.

. **Partzuergoaren araudia**

"GIPUZKOAKO HONDAKINEN PARTZUERGOAREN HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDURAKO ETA TRANSFERENTZIARAKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA ARAUDIA": Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren barruko araudia da, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15.1 e) artikulua betez onartua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, eta Partzuergoaren kudeaketa-esparruan hiri hondakinen transferentzia, garraioa eta tratamendua arautzea xede duena, baita bere balizko aldaketak ere.

. **Ingurumena**

Kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratua

- 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

- 5/2013 Legea, ekainaren 11koa, uztailaren 1eko 16/2002 Legea aldatzen duena, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuarena, eta uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen duena, hondakin eta lur kutsatuena.

Orokorra

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioarena.

- 1998/3 Legea, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumenaren Babes Orokorrekoa.

- Ingurumen Sailburuordearen 2016ko uztailaren 13ko EBAZPENA, Beasainen (Gipuzkoa) SASIETA MANKOMUNITATEAri emandako arriskurik gabeko hondakin zabortegiaren jarduerararako ingurumen-baimen integratua aldatzen duena.

Urak

- 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia, apirilaren 11koa.

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.

- 1/2006 Uren Legea, ekainaren 23koa. (Euskal Autonomia Erkidegoko Esparrua).

- Gipuzkoako Urak Partzuergoaren saneamendu eta isurpenen Araudiaren behin betiko onarpena (2005).

Hondakinak

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98 Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa eta Zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituena.

- MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, hondakinen balorazio eta ezabapenerako lanak eta hondakinen Europako zerrenda argitaratzen dituena. MAM/304/2002 Aginduaren, otsailaren 8koaren, akatsen zuzenketa, hondakinen balorazio eta ezabapenerako lanak eta hondakinen Europako zerrenda argitaratzen dituena.

- 679/2006 Errege Dekretua, erabilitako olio industrialen kudeaketa arautzen duena.

- 833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, maiatzaren 14ko 20/1986 Hondakin toxikoen eta arriskutsuen Oinarrizko Legea betearazteko Araudia onartzen duena.

- 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa.

- 943/2010 Errege Dekretua, uztailaren 23koa, pila eta metagailuak eta beren hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua aldatzen duena.

- 710/2015 Errege Dekretua, uztailaren 24koa, pila eta metagailuak eta beren hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko Errege Dekretua aldatzen duena.

- 1989ko Urriaren 13ko Estatu Agindua, hondakin toxiko eta arriskutsuen karakterizazio-metodoak zehazten dituena.

- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, zabortegian uztearen bidez hondakinen ezabaketa eta betegarriak egitea arautzen dituena.

- 212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa sortzen duena.

- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.

- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (GHHPO)

Zarata

- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena.

- 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, 37/2003 azaroaren 17ko Zarataren Legea garatzen duena, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez.

- 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, azaroaren 17ko 37/2003 Zarataren Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.

- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari dagokiona.

- 286/2006 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuei aurre egiteko langileen osasunaren babesari eta langileen segurtasunari buruzkoa.

Lurzoruak

- 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Presidentetzako Ministerioarena, lurzorua kutsatu ahal duten jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide estandarrak ezartzen dituena.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, EAEko esparruan lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarakoa.

. **Hiri antolamendurako Araudia**

- 24/2009 FORU DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena.

- 9/2018 FORU DEKRETUA, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren Aldaketa behin betiko onartzen duena.

. **Segurtasun industriala**

Instalazio elektrikoak

- 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoarena.

- 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoko instalazioen garraioa, banaketa, merkaturatzea, hornidura eta baimen-prozedurak arautzen dituena. 310. BOE, 2000ko abenduaren 27koa.

- 337/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 9koa, goi-tentsioko lineetako baldintza tekniko eta segurtasun-bermeei buruzko Araudia eta bere Argibide Tekniko Osagarriei buruzko Araudia onartzen dituena.

- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsioko Erregelamendu elektroteknikoa eta argibide tekniko osagarriak onartzen dituena.

- 1110/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, sistema elektrikoaren neurketa puntuen Erregelamendu bateratua onartzen duena.

- 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, kanpoko argiteriako instalazioetako energia-eraginkortasunaren Erregelamendua eta bere teknika-argibide osagarriak onartzen dituena. EA-01tik EA-07ra.

- 223/2008 Errege Dekretua, otsailaren 15ekoa, goi-tentsioko lineetako baldintza tekniko eta segurtasun-bermeei buruzko Erregelamendua eta bere teknika-argibide osagarriak onartzen dituena. ITC-LAT 01etik 09ra.

Presio-tresneria

- 2060/2008 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, Presio-tresneriaren Erregelamendua eta bere Argibide Tekniko Osagarriak onartzen dituena.

Substantzia arriskutsuak

- 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, substantzia arriskutsuak dauden istripu larrien berezko arriskuen kontrol-neurriak onartzen dituena.

Instalazio termikoak eraikinetan

- 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinen Instalazio Termikoen Erregelamendua eta bere ondorengo zuzenketak onartzen dituena.

Hozteko instalazioak

- 138/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, hozteko instalazioetarako segurtasun Erregelamendua eta bere argibide tekniko osagarriak onartzen dituena.

Suteen kontrako instalazioak

- 164/2025 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, establezimendu industrialetan suteen kontrako segurtasunerako Erregelamendua onartzen duena.

- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa (74. BOE, 2006ko martxoaren 28koa) eta bere Oinarrizko Dokumentua (suteetatik babesteko Segurtasuna, SI) onartzen dituena.

- 1942/1993 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa, Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamendua onartzen duena.

- 842/2013 Errege Dekretua, urriaren 31koa, sutearen aurrean duten errakzio- eta erresistentzia-ahalmenaren arabera, eraikuntza-produktuen eta eraikuntza-elementuen sailkapena onartzen duena.

- 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, eta 1998ko apirilaren 16ko Agindua, honako hauei buruzkoa: haren prozedura- eta garapen-arauak; establezimendu industrialetako suteetatik babesteko gailu, ekipamendu, sistema eta osagaiak; instalazioen diseinua, gauzatzea, martxan jartzea eta mantentze-lanak.

Segurtasuna eta Osasuna eta Arriskuen Prebentzioa

- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetan gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituena (256. BOE, 1997/10/25ekoa).

- 1995/31 Legea, 1995eko Azarokoa, Laneko Arriskuen Prebentziokoa.

- 5472003 Legea, abenduaren 12koa, laneko arriskuen prebentziorako arau-esparruaren erreformakoa.

- 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun-seinale eta osasun kontuetako gutxieneko neurriei buruzkoa.

- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lanpostuetan segurtasun eta osasun neurri gutxienekoak ezartzen dituena.

- 487/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, langileentzako arriskuak -bereziki, bizkarrekoak eta gerrikoak- berekin dakartzan zamen eskuzko manipulazioari buruzko gutxieneko segurtasun neurriei buruzkoa.

- 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeko segurtasun- eta osasun-neurri gutxienekoei buruzkoa.

- 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek laneko ekipamenduak erabiltzeko segurtasun- eta osasun-neurri gutxienekoak ezartzen dituena.

- 286/2006 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, zaratarekiko esposizioari lotutako arriskuen aurkako langileen osasunaren babesari eta segurtasunari buruzkoa.

- 681/2003 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, langunean atmosfera leherkorraren ondoriozko arriskua duten langileen osasunaren babesari eta segurtasunari buruzkoa.

- 614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, arrisku elektrikoaren aurrean langileentzako osasun-babeserako eta segurtasunerako gutxieneko neurriei buruzkoa.

- 337/2010 Errege Dekretua, martxoaren 19koa, honako dekretu hauek aldatzen dituena: urtarrilaren 17ko Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena; 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzen duena, eraikuntzan azpikontratazioa arautzen duena; eta 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetan gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituena.

- 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi egoerak sortu ditzaketen jarduerak egiten dituzten zentro, establezimendu eta sailetarako Autobabeserako Oinarrizko Araua onartzen duena. 72. BOE, 2007/03/24

Egiturak eta eraikitzea

- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta ondorengo aldaketak onartzen dituena.

. SE Oinarrizko Dokumentua. Egitura segurtasuna – Kalkulu oinarriak

. SE-AE Oinarrizko Dokumentua. Egitura segurtasuna – Ekintzak eraikingintzan

. SE-C Oinarrizko Dokumentua. Egitura segurtasuna – Zimenduak

. SE-A Oinarrizko Dokumentua. Egitura segurtasuna – Altzairua

. SE-F Oinarrizko Dokumentua. Egitura segurtasuna – Fabrika

. SE-M Oinarrizko Dokumentua. Egitura segurtasuna – Egurra

. SI Oinarrizko Dokumentua. Segurtasuna, suteren bat egonez gero. Suteen kontrako araudi espezifikoa Oroitidazki honen 8.1. atalean dago zehaztuta.

. SUA Oinarrizko Dokumentua. Erabileraren segurtasuna eta eskuragarritasuna.

. HS Oinarrizko Dokumentua. Osasungarritasuna.

. HE Oinarrizko Dokumentua. Energia aurreztea.
. DB-HR Oinarrizko Dokumentua. Zarataren kontrako babesa.

- 486/1997 Errege Dekretua, languneak. Plataformak eta eskailerak.

- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri ingurune, gune publiko, eraikin, informazio- eta komunikazio-sistemetara heltzeko baldintzen arau teknikoak onartzen dituena.

- 105/2008 Errege Dekretua – Eraikuntza hondakinen Erregelamendua, Ekoizpena eta Kudeaketa.

- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, EAEn eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

- ICT – Telekomunikazio Azpiegitura Komunak.

- Aplikatu beharreko Udal-Ordenantzak

Atmosfera leherkorrak

- 681/2003 Errege Dekretua, langunean atmosfera leherkorren ondoriozko arriskua duten langileen osasunaren babesari eta segurtasunari buruzkoa [99/92/CE Zuzentarauaren Trasposizioa (ATEX-137)].

- UNE-EN 60079-10 Atmosfera leherkorrak

Suteen kontrako babesa

- UNE Arauak, Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamendua aplikatzean ezinbestean bete behar direnak. Honako hauek dira:

- Su-itzalgailuak: UNE 23.110/1: 1996.

- Suteetako ur-hargune hornituak: UNE-EN-671-1/1995 eta UNE-EN-671-2/2013. UNE 23402 eta UNE 23403.

- Ur-harguneak: UNE 23.405 A 23.407.

- Langarreztagailu automatikoen instalazioak: UNE EN 845.

- UNE-EN 15767-1:2010. Suteen aurkako ponpak dituzten eta sua itzaltzeko lehengaiak jaurtitzen dituzten gailu eramangarriak. Lantza eta kanoi eramangarriak. 1. zatia: lantza eta kanoi eramangarrietarako baldintza orokorrak.

- UNE-EN 15767-2:2010. Suteen aurkako ponpak dituzten eta sua itzaltzeko lehengaiak jaurtitzen dituzten gailu eramangarriak. Lantza eta kanoi eramangarriak. 2. zatia: ur difusoreak.

- Suteak detektatzeko instalazioak: UNE 23.007 (14. zatia).

- UNE 23500:2012. Suteen kontrako ur-hornidurako sistemak.

- Suarekiko erresistentziako saioak: UNE 23093:1998.

- Eraikuntza-materialen suarekiko erreakzioa aztertzeko saioak. Eraikuntzan erabilitako materialen sailkapena: UNE 23727:1990.

- Seinaleak: UNE 23033, UNE 23034, UNE 23035 eta 81501.

Suteen aurkako babeseko instalazioak diseinatzean, eta bereziki horri dagokion UNE Araurik
ez dagoenean, CEPREVENen Arau Teknikoak erabiliko dira:

- R.T.2.-EXT, su-itzalgailu mugikorren instalazioetarako.
- R.T.2.-CHE, eraikinen kanpoko aldeko zutabeko sute-ahoetarako.
- R.T.2.-BIE, suteetako ur-hargune hornituetarako.
- R.T.3.-DET, sute-detekzio automatikoko instalazioetarako.
- R.T.2.-ABA, suteen kontrako ur-hornidurarako.

- R.T.1.-ROC, langarreztagailu automatikoko instalazioetarako.
- R.T.4.-CO2, karbono dioxidozko itzalgailu finkoko instalazioetarako.
- R.T.5.-GIN, gas geldo ez-likidotuak erabiltzen dituzten Suteen Aurkako Sistemen diseinurako zehaztapena.

Oharra:
Aplika daitekeen eta Lehiaketa hau argitaratzean eguneratuta dagoen Legeria beteko da.

1.4 OBRAK ZEHAZTEN DITUZTEN DOKUMENTUAK

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiriaz gain, obrak zehazten dituzten dokumentuak honako hauek dira: Agiri hau bera, ASMATU S.L merkataritza-enpresak idatzitako Proiektu erantsia eta gainerako kontratu-informazioa. Horiek guztiek osatzen dute obra hau egiteko erreferentzia gisa balio duen oinarrizko dokumentazioa.

Preskripzio Tekniko Partikularren Agiriak ezartzen du Obren definizioa, beren berezko izaerari dagokionez, proiektuarekin batera.

1.5 LANEN DESKRIBAPENA

ASMATU S.L. ingeniaritzak idatzitako Proiektuan dago
bilduta egin beharreko lanen deskribapena, BTA honen I. eranskinean bilduta dagoena.
Eranskinak honako dokumentu hauek ditu:

- 1. Dokumentua. Oroitidazkia eta Eranskinak

  A.1 Hondakinen kudeaketa

  A.2 Segurtasuna eta Osasuna

  A.3 Kalitate-kontrola

  A.4 Obra-plana

- 2. Dokumentua, PLANOAK
- 3. Dokumentua, AURREKONTUA
- 4. Dokumentua, OBRA AGIRIA

1.6 IRISMENA

1.6.1.1 LANEKO TALDEA

Laneko talde egokia eduki beharko du adjudikaziodunak, beharrezko euskarri espezializatuak dituena eta teknikari trebeek zuzendutakoa.

Adjudikaziodunak egin beharreko zereginak eta lanen irismena honako hauek dira. Adierazitako dokumentazio-zerrenda zerrenda bat da soilik, ez mugatzailea.

- Laneko “Planning”-a

  Adjudikaziodunak planifikazio bat egingo du lanak hasi aurretik, eta obra bukatu arte eguneratuko du. Obra-programa zehaztuko da eskaintzan, kontrol-zedarriak, bide kritikoak nahiz azpikritikoak, beharrezko baliabideak eta abarrak adieraziz. Baldintza agirietan adierazitakoarekin eta Adjudikaziodunak proposatutako exekuzio-kronogramarekin bat etorri beharko dute epeek.

- Segurtasun- eta Osasun-Plana. Obrak hasteko beharrezkoa den Segurtasun eta Osasuneko dokumentazioa prestatuko du Kontratistak, urriaren 24ko 1627/1997 Dekretuari jarraiki, eraikuntza-lanetan segurtasun- eta osasun- neurri gutxienekoak ezartzen dituena. Aipatutako 1627/97 Errege Dekretuaren 5. artikuluan dago zehaztuta irismena, eta Obran egiten den edozer jarduera izan beharko du kontuan, II Eranskinean bildutakoak bereziki (arrisku berezietako lanak). A.2 Eranskineko lanek hauek egiten direneko aldeak mugatuta eta idenfikatuta izan beharko dituzte, baita beren neurri espezifikoak ere.

- **Martxan dagoen eta ekoizten ari den industria-instalazio baten barruan egin beharreko jarduerak direnez, instalazioko operadorearekin koordinatu beharko du lizitatzaileak/adjudikaziodunak, kasu honetan ABEE LEGAZPI DOS izanik, PREZERO eta CAMPEZO enpresek osatua.**

- **Lanak antolatu beharko ditu adjudikaziodunak, instalazioko lan-erritmo ohikoa ez kaltetzeko eta aldatzeko.**

- **PRL gaian, baita lanak burutzean ere, ABEE LEGAZPI DOSeko Prebentzio Zerbitzuarekin egon beharkok du koordinatuta adjudikaziodunak. Aurreikusi beharko du lan batzuk asteburuetan edo jaiegunetan egin behar izatea, instalazioaren produkzio arrazoiengatik eta bertako jarduera etetea ezinezkoa izateagatik, instalazioan egin beharreko lanen ezaugarriek hala behartuta. Asteburuetan eta jaiegunetan, instalazioak bi jarduera egiten ditu: behe-bilketatik datozen ontzien bilketa, instalazioa erabiltzen duten toki-erakundeek egiten dutena; eta aldez aurreko mantentze-lan batzuk.**

- **Obrako Segurtasunaren Koordinazioa ASMATU enpresak egingo du, GHK S.A.U.-k kontratatuta**.

- Hondakinak Kudeatzeko Plana.

Era berean, adjudikaziodunaren zeregina izango da dagokien elkargo profesionalean proiektuak burutzea eta bisa jartzea, instalazioak legeztatzeko eta beharrezko baimenak lortzeko, goian adierazitakoak izan ezik. Jarduera horien ondoriozko tasa, kostu eta ordainsari guztiak, Adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu, baldin eta bisa jartze eta legeztatze horiek aplikatu beharrekoak balira. A1 Eranskinaren aplikazioa.

Martxan jartzea, berme-probak eta legeztapenak Kontratistaren kontura egingo dira.

1.6.2 ERAIKUNTZA

Kontratu honetan kontratatutako obren burutzearen eta instalazioen lan eta jarduera guztiak bere gain hartu beharko ditu:

- Material eta osagarrien erosketen kudeaketa.
- Obra zibila eraikitzea, baldintza-agiri honetan eta I. Eranskinean zehazten den bezala.
- Instalazioen hornidura eta obran muntatzea, baldintza-agiri honetan azaltzen den bezala.
- Entseguak eta kalitate-probak.
- Lanak zuzen eta osorik burutzeko beharrezkoak diren behin-behineko izaerako instalazio osagarrien arduraduna izango da Kontratista, besteak beste obra-txabolak, komunak eta aldagelak, beharrezkotzat jotzen baditu.

2. KONTRATUAREN GARAPENEAN INDARREAN EGONGO DIREN BALDINTZA TEKNIKOAK

2.1. IZAERA OROKORREKO BETEBEHARRAK

Kontratistak bere eskaintza garatu beharko du, Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian deskribatutako kontratu-dokumentazio osoaren arabera.

2.2 LAN-PROZEDURAK

2.2.1 Kontratistaren antolaketa

Kontratistak, kontratuaren sinaduraren ondorengo 10 laneguneko epean , honako hauek aurkeztuko dizkio Zuzendaritza Fakultatiboari:

- Obra Antolaketako eta Prozeduretako Eskuliburua, 38/1999 Legeak, azaroaren 5ekoak, aurreikusten duena, Eraikingintzaren Antolamenduari eta aplikagarria den beste araudi bati buruzkoa.
- Betetzearen programa (planning) zehatza.
- Obraren Segurtasun Plana, Egikaritze Proiektuan emandako Azterketaren araberakoa, BTA honi erantsitakoa.
- Hondakinak Kudeatzeko Plana, Exekuzio Proeiktuan emandako Azterketaren araberakoa, BTA honi erantsitakoa.

Behin Kontratua esleituta, bete beharreko honako alderdi hauek jakinaraziko zaizkio Adjudikaziodunari:

- Proiektuko eragileen eta bere pertsona gakoaren identifikazioa.
- Komunikazioko eta korrespondentziako prozedurak eta formatuak.
- Osagaien eta proiektuaren dokumentazioaren kodifikazio- eta identifikazio-prozedura.
- Dokumentuen aurkezpen- eta edizio-arauak (erabiliko den softwarea, formatuak, planoen kutxa, etab.)

2.2.2 Eskumeneko zuzendaritzaren ikuskapenak

GHK-k bere kabuz kontratatuko du Zuzendaritza Fakultatiboa.

Zuzendaritza Fakultatiboaren ikuskaritzaren iritziz, itxurazko akatsak konprobatzeko entseguak edo probak beharrezkoak badira, hauek Adjudikaziodunaren kontura egingo dira, eta eraikuntza-jardunbide egokiaren arau eta erregelamenduen arabera burutuko dira.

Kontratistak ezingo du obren zati bat bistatik kanpo jarri aldez aurretik Zuzendaritza Fakultatiboari abisatu gabe, honek, nahi izanez gero, berrikusi dezan ezkutatuta geratuko den zatia.

Zuzendaritza Fakultatiboaren dokumentu, entsegu, lanaren eta abarren berariazko edo isileko onarpenak, edo ikuskaritzako bere ahalmenak ez erabiltzeak, ez dute Kontratista salbuesten obra egoki egiteko bere arduratik eta edozein hutsengatik erantzutetik. Halaber, Zuzendaritza Fakultatiboaren ikuskapenek ere ez dute Kontratista libratzen bere ardurak betetzetik eta indarreko erregelamendua betetzetik.

2.3 OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Adjudikaziodunak zintzo beteko ditu Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko indarreko xedapenak, baita Segurtasun Plana ere.

Segurtasun Planean, Kontratistak bere gain hartzen du lanak burutzea bide publikoetako eta aldameneko eraikinetako segurtasuna zainduz, baldin eta horiek

baleude; neurriak ez hartzeagatik edota lanak burutzean egindako akatsengatik eragiten diren kalteen ardura onartzen du.

Adjudikazioduna honako hauen arduradun bakarra izango da:

- Zuzeneko eta zeharkako kalteak, akatsekin eraikitako instalazioek, erabilitako teknikak edo bere langileen zabarkeriak eragindakoak.
- Pertsonei, florari, faunari, instalazioei, jabetza propio eta besterenari eta abarri, obren akats zuzen edo zeharkakoagatik, eragindako kalteak.
- Materialen kalitatea eta beren dosifikazioa, eraikuntzaren jardunbide egokiari dagokiena.
- Erabilitako lan-metodoen erabilera egokia.

Adjudikaziodunak aukeratuko ditu beharrezkotzat jotzen dituen eskora oholtza-, seinale-, segurtasun-, argiztapen-bitartekoak, obra-aldian Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak ematen dituen aginduekin bateragarriak direnak (ASMATU).

2.4 INGURUMENA

Adjudikaziodunak GHKren ingurumen-politika eta ingurumen-zehaztapenei, ISO 14000 egiaztagiriaren araberakoei, erreparatuko die.

Eraikuntza- eta Eraispen-Hondakinen Kudeaketa Plana (RCD) egingo da, 1. Eranskinaren barruko Burutze Proiektuarekin batera dagoen Kudeaketa Azterketa oinarri duena.

2.5 LANEKO PROGRAMA

Adjudikaziodunak, kontratuaren sinaduraren ondoren ezarritako epean, programa garatu bat aurkeztuko du, non obrako jarduera guztiak eta hornidura-datak bilduko dituen. Zuzendaritza Fakultatiboak programa komentatu eta onartu ondoren, GHK-k eta Adjudikaziodunak sinatuko dute obra abiarazteko bileran, eta obraren aldizkako aurrerapenak kontrastatzeko “oinarri-lerroa” izango da.

Lanen jarraipen egokia egiteko helburuarekin, planifikazio- eta jarraipen-bilerak egingo dira. Horien maiztasuna Zuzendaritza Fakultatiboak eta Adjudikatzaileak aukeratuko dute elkarrekin adostuta, martxan dauden lanen konplexutasunaren eta kritikotasunaren arabera. Beharrezkotzat jotzen da gutxienez hamabostean behin lanen jarraipen- eta garapen-bilera bat egitea.

Baldin eta Adjudikaziodunari egotzi dakiokeen atzerapenik badago, honek atzerapenaren ondorioei aurre egiteko neurriak hartuko ditu. Zuzendaritza Fakultatiboak Kontratistaren kontura agindu ahal izango ditu obrari atxikitako giza-

eta material-baliabideak eta bestelako neurriak gehitzea, atzerapena errekuperatzeko.

Adjudikaziodunak idatziz eta nahiko aurrerapenarekin jakinaraziko ditu bere lanen hirugarrenentzako eragozteak, aurreikusitako exekuzio-plana betetzea eragotzi edo zaildu dezaketenak.

Adjudikaziodunak gogoratu beharko du **HIRU HILABETE IZANGO DITUELA KONTRATUAREN SINADURATIK,** Proiektuaren arabera, instalazioen berritzea bukatzeko eta obra bukatua GHK S.A.U.ri emateko.

2.6 KALITATE-KONTROLA

Adjudikaziodunak bere eskaintzan sartuko du nahitaez bete beharreko arauen arabera egin beharreko proba eta entsegu guztien kostua. Kostuak, honako kontzeptuak izango ditu barne: laguntza teknikoa, eskulana, materialak eta zerbitzuak.

Honako hauek sartu beharko dira gutxienez:

- Ekipoen eta materialen kalitate-ziurtagiriak. EB marka nahitaezkoa izango da ekipo guztietarako.
- Probak eta dokumentazioa, indarreko arauen araberakoak.

Adjudikaziodunak prestatu eta eguneratua izan beharko du kalitate-kontrolako dosierra.

2.7. ENBALAJEA, GARRAIOA ETA HORNIDURAREN DESKARGA

Adjudikaziodunaren hornidurak enbalaje, garraio eta deskargaren kostua izango du barne.

Enbalajea egokia izango da, ekipoek obrako maneiuan, deskargan eta biltegiratzean hondatzerik izan ez dezaten.

2.8 EGITEA OBRAN

Adjudikaziodunaren hornidurak hornidurako material eta produktu guztien kostua izango du barne, eta aipatutako lanerako behar den eskulan espezializatu eta ez-espezializatu guztia eskainiko du, eta lanaren egitea gainbegiratuko du.

Egitea obran honako hauen arabera burutuko da: Obrako Planning Orokorra; indarreko legediak nahiz Segurtasun eta Osasun Planak ezarritako nahitaezko arauak. Segurtasun eta Osasun Plana Adjudikaziodunak berak egindakoa izango da, eta Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak onartutakoa.

2.8.1 Obran eskuragai dauden zerbitzuak

Adjudikaziodunak langileentzako aldagela eta komunak egoteko gunea izango du instalazioan. Gunea, hain zuzen, GHK-k eta instalazioko operadoreak , ABEE LEGAZPI DOSek, emango dute.

2.8.2 Obran dauden langileak

Zuzendaritza Fakultatiboari emango zaio datorren hilabeterako obrarako langile-aurreikuspena, betiere hil bakoitzaren 15a baino lehen. Aurreikuspena, azpikontratatutako enpresetan edota lanetan xehatua emango da. Bertan, pertsona bakoitzaren kargua edo lanpostua azalduko da.

Obran egongo den pertsona bakoitzeko TC1 eta TC2a (Segurtasun Sozialari egindako ordainketa-orriak) ematea derrigorrezkoa izango da, betiere obran lanean hasi ondorengo bi egunak baino lehen.

2.8.3 Obrako dokumentazioa

Horniduraren ekipoen eraikitze eta muntaketa egokirako beharrezko plano eta arauen artxibo osoa eduki beharko du Kontratistak obran. Artxiboa eskuragai egongo da edozein unetan, kontsultak egin ahal izateko.

2.9 EGOKITZAPEN TEKNIKOAREN BUKAERA ETA MARTXAN IPINTZEA

Zedarria da instalazio berriak banaka edo batera erabiltzeko prest egotea, dagozkien plano eta zehaztapenen arabera eraikiak eta jarriak egotea, behin Adjudikaziodunak instalazio-azterketak eginda, eta behin entseguak eginda.

Baldin eta azterketetan eta/edo probetan, GHK-k eta Zuzendaritza Fakultatiboak gainbegiratuetan, akatsen bat aurkituko balitz, Adjudikaziodunari dagokio akatsa zuzentzea eta instalazioa bukatzea, Kontratuan zehaztutako baldintzen arabera. GHK-k eta Zuzendaritza Fakultatiboak ez onartutako probak errepikatu egin beharko dira. Era berean, akatsa ondoren antzematekotan, Adjudikazioduna izango da erantzule.

Martxan Jartzeko, beharrezkoa izango da azpiegitura bukatu izana. Eta erremateak egitearen eta akatsak konpontzearen zain geratu daitezke aldeek onartutako maila batean. Martxan jartzea kargan ezin izango da hasi honako bi baldintza hauek badaude: industriako segurtasun-legeztapen guztiak ez edukitzea; egiteke dauden lanen zerrendan operazioaren segurtasunean eragin dezaketen puntuak egotea.